



Euskal Herriko Biblioteka Nazionala: oker gabiltza

Gerardo Luzuriaga
Nere Erkiaga

Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiko kideak
2004-05-00

Azkeneko urteotan Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiak Biblioteka Nazionalaren beharizana etengabe aldarrikatu eta arrazoitu arren (<http://www.eibar.org/joana-albret/gogoetak.htm>) eta euskal kultura behar den bezala babestu eta zabaltzeko oinarritzakoa den informazio sistema eratzeko eskumenak ia 25 urte luzetan izan arren, oraindik Euskal Herriko Biblioteka Nazionala antolatzeko inolako aurrera pausurik ez da eman.

Mundu zabaleko estatuak eta baita estaturik gabeko herrialdeek ere bere Biblioteka Nazionala dutenean, Espainiar estatuan bertan erkidego guztiak bere Biblioteka Nazionala edo Biblioteka Nagusia dutenean (Kataluniak 1981ean, Andaluziak 1983an, Aragoik 1986an, Gaztela-Mantxak 1989an, ...), nazioarte mailako erakundeek (Unesco, IFLA, UBC, ...) eta maila guztietako adituek ere biblioteka nazionalen beharizana azaltzen dutenean, gurean antza denez, zerua eskatzea da.

Behin baino gehiagotan izan dira biblioteka nazionalaren aldeko politikarien adierazpenak, aurrekontuetan ere biblioteka nazionala eratzeko atala ere inoiz egon da, baina denbora pasa eta berdin jarraitzen dugu, bertoko eta kanpoko profesional askoren harridurarako. Ez gara gu soilik gure egoera tamalgarriaz jabetu garen bakarrak, asko dira harritura daudenak. Hona hemen Espainiako erkidegoetako egoerak aztertzen zituen 1997ko lan batean EAEko egoerari buruz idatzitakoa¹: *“El País Vasco accede a la autonomía mediante ley orgánica 3 (1979 de 18 de diciembre) (...) La legislación bibliotecaria que dimana de los órganos de gobierno es escasa y de poca entidad. En concreto carece de una ley de bibliotecas con el carácter de norma reguladora general de toda la comunidad, como ocurre en casi todo el resto del Estado español. (...) Estas son las únicas menciones que, desde el punto de vista del control bibliográfico, se efectúan en la legislación vasca de bibliotecas. Ninguna alusión por tanto a la necesidad de una biblioteca central de carácter nacional o regional, a la necesidad de elaborar una bibliografía que recoja el producto de la producción editorial vasca, de dar a conocer la cultura vasca a la comunidad implicada y al exterior. Nada absolutamente que relacione las oportunidades que la nueva situación política y administrativa supone para el desarrollo y la extensión de la cultura e idiosincrasia de la comunidad, como veíamos en otras legislaciones (...)”*

Alor honetan egin ez diren lanak ugariak dira: euskal kulturak behar duen informazio politika arautu gabe eta ondare bibliografikoa behar den bezala jaso, gorde, babestu eta zabaldu gabe dago; ondare bibliografiko baliotsuak eskuratu eta gordetzeko erakundeen arteko koordinazioa arautu gabe dago; pertsona edo erakunde pribatuen funts bibliografikoak zein erakundeek jaso behar dituen argitu gabe dago; euskaraz katalogatu eta zerbitzua eman ahal izateko tresnak sortu gabe daude; araudi bibliografikoa gurerak egokitu gabe dugu; egun Interneten

¹ Cordon García, José Antonio. El registro de la memoria : bibliografías nacionales y depósito legal. Gijón : Trea, 1997. ISBN 84-89427-23-2, 223-224orld.



euskal ondarearen parte diren eta hain azkar desagertzen diren web guneak gordetzeko erakundea antolatu gabe dago; ... egiteko dauden lanen zerrenda luzea da.

Euskal Autonomi Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzaren liburutegi sarean parte diren udal liburutegien eta proiektura batu diren beste liburutegien katalogoekin Katalogo Kolektiboa eratzen hasi ziren, eta egun, programa informatiko bera erabiliko duten liburutegien sareari hasiera eman zaio, funtzionamendua bateratuaz lanak eta gastuak gutxitzeko asmoarekin. Ekimenok berez oso baliagarriak izan daitezke (ez ditugu orain aztertuko) baina batetik, elebitasunaren auzia konpondu gabe gelditu da, eta bestetik, katalogo kolektiboez ez dituzte biblioteka nazionalaren lanak betetzen: funts bibliografikoen kokapena datu-base bakarrean jasotzea, liburutegien arteko mailegua arautzea eta erabiltzaile txartel bakarra eskaintzea oinarrizko zerbitzuak besterik ez dira, egitura birtual hutsak, eta telematika ezin da Biblioteka Nazionalaren ordezkari saldu.

Hainbatetan eskatu den bezala, gure hizkuntza ofizialak maila berean hartuko dituen liburutegi sistema antolatu eta arautu behar da, eta sistema horren buru Biblioteka Nazional *Erreal*a izan behar da, baliabide guztiak izango dituen biblioteka (eraikina, pertsonak eta dirua). Lan horri ekin gabe beste lanak egitea arazoari txaplatak jartzea besterik ez da izango. Informazio birtuala jaso eta kudeatuko duen benetako Biblioteka behar dugu.

Euskal kulturaren kontserbazioaz, babesaz eta zabalkundeaz ari gara, eta lan hori banaketa administratibo eta politikoen gainetik egon behar da, ideologiaren gainetik. Gure politiko guztiak, eta batez ere boterean daudenak, lan honen garrantziaz jabetu eta orain arteko borondate ezari buelta emanda arazo larri hau konpontzeko baliabideak jarri eta bideak jorratu behar dituzte.

Gure atzerapen lotsagarri honek bentaja handia ere badu: mundu zabaleko esperientziak ditugu ikasi eta gauzak ondo egiteko. Hasi gaitezen behingoz lanean.